

Euskalgintza

Euskara zure zurea egiten duzunean, ondo ulertzen duzu bere garrantzia»

AEK-k euskal kultur eta kirol munduko pertsonaiak bildu zituen atzo

Euskara ikastea eta lantzea hizkuntza bat ikastea baino gehiago, «kultur errealitate zabal baten partaide izateko bidea» dela argudiatuz, AEK-k euskal kultur eta kirol munduko hogeiren bat pertsonaia bildu zituen atzo Bilbon beraien esperientzien berri eman zezaten.

GORANE AGIRRE / BILBO

Erramun Osa AEK-ko arduradunak azaldu zuenez, «hemen diren batzuk, une honetan ari dira euskara ikasten eta, bide batez, herri honen izaera ezagutzen. Honekin batera, izan garena eta egun euskalgintzak arlo ezberdinetan egiten ari dena deskubritzen ari dira, biharko Euskal Herrian euskara bazter guztietara zabal dadin ahaleginetan».

Iturri berberetan esanetan, «AEK Euskal Herri euskalduna erdiesteko aniztasunean oinarritutako proiektu herritarra denez, herritarrak ekarri ditu gaurko honetan».

Baleren Bakaikoa EHUKo irakasleak, AEK bezalako herri erakundeek helduen alfabetatze eta euskalduntzean egiten duten lanaren ezinbesteko garrantzia azpimarratu zuen. «AEK herritik sortutakoa da eta gizartearen onspena du. Baina, oraindik ez du onspen hori lortu gure herriko politikari askoren aldetik, eta agintari horiei eskatu nahi diet herriak onartutako erakundeak beraiek ere onartu ditzaten».

Ondoren, Imanol Lazkano Bertsolari Elkarteak lehendakariak hartu zuen hitza, eta bere esanetan, «euskaraz bizi ez baldin bada, Euskal Herriak ez da egongo. Orain, herrien



Euskal munduko jende ezaguna elkartu zen atzo AEKren eskutik.

J. SIMAL

burujabetza eskatzeko garaia dela dirudi. Sekula galdu ez badugu, nik esango nuke herri baten burujabetza lortzeko tresnarik egokiena bere hizkuntza dela».

Gontzal Mendibil kantariak euskal poeta baten hitzak aipatuz, zera adierazi zuen, «inperioak menpe gura zaitu, erantzuzko euskaraz aske zarela». Ildo beretik, Gontzalek euskara ez ikasteko aitzakiak soberan daudela azpimarratu zuen: «geure burua hemengotzat badugu, erantzun diezaiegun euskaraz. Euskara barik geu izatearena kenduko genuke eta erdipurdiko 'nosotros' bat izango ginatke».

Xabier Muguruza 'Les Mécaniciens' taldeko kantariak euskaldun berrien ikuspuntua jorratu zuen. Bere esanetan, «errespetuagatik» ekin zion euskara ikasteari, «euskara asko kostata ikasi nuen arren, piskana euskararekin maitemintzen hasi, eta gero eta gustorago ikasten dihardut. Euskararekin beste gauza gehienekin ez bezala, 'zeurea' egiten hasten

zarenean, orduan ulertzen duzu bere garrantzia».

Alberto Gabikagogeaskoa itzultzaileak, berriz, euskaldun zaharrei bidali zien bere mezua. «Euskaldun berriek hainbeste esfortsu eginda euskara ikasten, euskaldun zaharrok gizarteko maila guztietan euskaraz bizitzeko ahaleginak egin behar ditugu, euskara landu eta erabiliz».

Azkenik, Martin Orbe apaiza eta UEUKo zuzendari ohiak, euskara ez dakitenei ikasi eta dakitenak alfabetatzera eta erabiltzeko arrazoi batzuk aipatu zituen. «Arrazoi oparoena, militantziarena da; bigarrena, pragmatismoa izan daiteke; hirugarrenik, herrikortasun sentimendua nahasia daukatena». Laugarren motiboa, Orberen ustetan, «hitzezko harremanak izan behar dituztenak dira. Ikasteko asmoa dutenek orain ikasturte hasieran dute aukera». Bilboko AEK-ko euskaltegiaren ikasle eta irakasleak kalera atera ziren atzo, bilbotarreri AEKren lan eta matrikulazio kanpainen berri emateko.

AEK-k Lezoko Oroitzene euskaltegia inauguratuko du asteburu honetan

DONOSTIA

Gipuzkoako AEK-k zenbait ekitaldi antolatu ditu egunotan euskaltegi berri baten inguruan. Izan ere, Lezoko Oroitzene euskaltegiaren inauguraketaren ekintzak asteburu osoan zehar izango dira. Lehen ekitaldiak atzo bertan hasi ziren prentsaurreko batez.

Lezoko sorginaren izena hartu duen euskaltegia «hurrengo gailurrera» iristeko baliagarria izango dela esan zuen atzoko prentsaurrekoan herri honetako AEKko arduradunak. Egoitza berri honek geroari begira ezarri dituen helburuak «udalarekiko elkarlana sakondu, eskolen kalitatea eta emaitzak hobetu eta Lezoko euskaldunekin harremanak estutzea» dira, besteak beste.

Herri honetako AEK-k adierazi bezala, Oroitzene euskaltegia «herri ekimen eta instituzioen arteko elkarlanaren emaitzaren ondorioz» sortu da. Prentsaurrekoan AEK elkarriketa bideari heltzeko prest dagoela

gogorarazi zuten hizlariak. Herri ekimenek gabe aurrera joaterik ez dagoela argudiatzeko Nafarroa eta Iparraldeko adibideak aipatu zituzten, bertan nabarmentzen bait da mota honetako laguntza. Euskal Autonomi Elkartearen bada halako kausirik, batez ere 10.000 bizilagun baino gutxiagoko herrietan. Horixe izango litzateke Lezoren kasua, bertako arduradunen esanetan.

Atzoko prentsaurrekoan, gainera, asteburu honetan izango diren ekitaldien berri eman zuten. Gaur, larunbata, arratsaldeko bostetan hasiko da jaia idi demen saioarekin eta ordu berean jokatu diren emakumezkoen arteko pilota partiduekin. Iluntzeko bederatziaren herri afaria izango da eta ostean bertsolariak, trikitilariak, dultzaineroak, Mikel Markez eta Erramun Martikorena ikusi eta entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnak. Bihar eguerdian inauguraketa ofiziala egingo dute Muxika dantza taldearen agurrarekin.

Errepideetako istripuen % 70 gizakiaren errua izaten da

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Jesus Elgezabal, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Trafiko zuzendaria EAeko errepideetako istripuak eragiten dituzten arrazoiak aritu zen atzo Legebiltzarrean. Elgezabalek azaldu zuen moduan, «gehiegizko abiadura edo arreta falta» dira iaz gertatu ziren istripuen % 70en arrazoiak eta «eragileak pertsonak» direla esan zuen, «kotxea gidatzen duena nahiz oinezkoarengan».

Gizakiak eragindako faktoreak aipatu zituen Elgezabalek, hala nola, alkoholdun edariak, drogak eta botikak hartzea, egoera psikiko eta emozionala eta abiadura. «Baina gizakiaren arreta falta gaineratuko nuke nik», esan zuen trafiko arduradunak, «Ertzaintzaren datuak ikusita errealitate hutsa dela somatzen bait da».

Istripuen beste zenbait eragilerik dagokionez, lehenetsia behar bezala ez ematea dago % 9ko portzentaian, baita animaliak edo gizakiak errepidean sartzea —% 7—; aurreratze desegokiak

—% 5—; eta ibilgailuaren egoera kaxkarra —% 1,6— ere. Hauexek aipatu zituen Trafiko zuzendaria.

ERREPIDEETAKO EGOERAREN ERAGINEZ

Errepidearen egoera kaxkarrak edo trafikoko-adierazle desegokiak istripu eragileak % 1,68 dira. Arlo hauetaz hitzegiterakoan, «gure errepideetako segurtasunaz kezkatutik» dagoela adierazi zuen Elgezabalek. «Azkeneko urteetan 50 azterketa bidali dizkiegu urteko foru diputazioei, errepideetako tarte askori buruzko ohar eta azalpenak ematen dituztenak», komentatu zuen.

Lurralde bakoitzari dagokionez, Araba da abiadura eta arreta ezaren faktorearen eragin handiena jasotzen duena. Gipuzkoan aurreratze desegokiak eta Bizkaia eta Gipuzkoan animaliak eta gizakiak errepidean sartzea ditugu nagusi.

Iaz 3.414 istripu izan ziren EAEn, aurreko urtean baino 150 gutxiago, hain zuzen. Hildakoen kopurua 220 izan zen iaz.

Protur Araba elkartea sortu dute herrialdeko turismoa bultzatzeko

L.K.G. / GASTEIZ

Ekonomia, turismo, harreman publiko edo irudia bezalako alorretan trebatuta dagoen lagun talde bat osatu berri duen Protur Araba elkartearen aurkezpenean egin zuten atzo Gasteizen. «Arabaren turismoa maila guztietan bultzatzea» du helburu Protur Arabak.

Aurkezpenean egin zuten elkarte kulturaltzat jotzen duten erakundeak «zerbitzuen garapenerako bide egoki eta suspertzaileak» izan nahi du Araban. Gainera, «formula ekonomiko nahiz osagarri berrien premia duten Arabako inguru deprimituen bultzada berezia» aipatu zuten Protur

Araba elkarteak. Euskal Autonomi Elkarteak eskaintzen duen proposamen turistikoaren barne, Arabaren gauzatu nahian dabilta hainbat eraz baliaturik.

«Esate baterako, turismoarekin zerkusia duten proiektuei esker, bai Arabak dituen ahalbideen eskaintza eta hustiaketaren aldetik, bai turismo arabarra erakargarriago bihurtzeko deza-keenaren bidez».

Hustiaketarako azterketak egiteaz aritu ziren eta proposamen jakin bat egiterakoan «behar bezalako ikerketak eta proiektuak» egin beharko dituztela esan zuten. Gainera, «ahaleginen koordinazioan» kontu garrantzitsua dagoela adierazi zuten.



SAN FERMIN Txikito Festei atzo eman zieten hasiera Iruñean. Eguerdiko hamabietan egun hauetako izendatu duten alkate txikiak piztu zuen suziria eta ondoren Erraldoi eta Buruhandien konpartsa atera zen kalejiran. Iruñeko Alde Zaharra musika, dantza eta giro alaiak beteko da. Gaur gauean eta bihar izanen dira saio garrantzitsuenak entzierro, zezenketa, sufestak. Hau dela eta, istilu ugari sortu dira. Badirudi Udalak -alkateak- Sanfermin ttiki hauek hantziak egiteko erabakia hartu duela inori galdetu gabe. Alderdi politikoak eta penak ez dira oso kontent agertu eta azken hauek zezenketara ez dira joanen.

IKAk Baionako AEKren kontrako tiroketa salatu du

IRUÑEA

Nafarroako Ikas eta Ari (IKA) euskalduntzerako erakundeak Baionako AEK-k jasandako eraso salatu du idazki baten bidez, eta bere elkartasuna adierazi die bertako ikasle eta irakasleei. IKAk agirian azaltzen duenez, Europako herriak beren nortasuna eta independentzia aldarrikatzen ari diren une honetan «herriaren ezaugarri nagusia den hizkuntza baztertzeko ez dira aski nonbait legeak eta mespretxua». Nafarroan diharduen erakunde honen esanetan, «orain tiroak ere beharrezkoak dira». IKArek iritziz, azkenaldi honetan «Nafarroa Garaiko Parlamentuan hain euskaltzale agertu diren alderdi horiek tiroketa gaitzetsi beharko lukete».